



Jardunean dauden profesionalentzako zazpi master eskainiko ditu MU-k

Mondragon Unibertsitateak presentziako prestakuntza eta birtuala uztartuko ditu titulazio berrietan. Horien artean dago Enpresa Kooperatiboen Kudeaketa Unibertsitate Masterra. Masterrak gaztelaniaz, ingelesez eta euskaraz egin daitezke, kasuak kasu.

INFORMAZIO +

Mondragon Assembly-k 10 milioi euroko eskari garrantzitsua lortu du Txinan

Kooperatibak eguzki panelak muntatzeko lanak automatizatuzko 20 makinarekin hornituko du Asiako herrialde horretako enpresa bat. Horrela, automatizazioan eta robotikan bereizitako enpresa horrek bere historian jasotako eskarien marka hautsi du.



INFORMAZIO +



Estarta eta Danobat kooperatibek bat egin dute lehiakorragoak izateko

Estarta kooperatibak, artezteko makina zentrogabeak fabrikatzen dituenak, eta Danobat kooperatibak bat egin dute "lehiakortasuna areagotzeko asmoz", Mondragonek jakinarazi zuenez. Estarta 1996an integratu zen Danobat Taldean eta oraingo bateratzearekin prozesu hura itxi dute bi enpresek.

INFORMAZIO +

Euskadiko eta Aragoiko bi kooperatibak erosketak bateratuko dituzte farmazia gastuaren murrizketari aurre egiteko

Vascofar eta Aragofar kooperatiba farmazeutikoez hitzarmena sinatu dute elkarlanaren eta sinergiaren bidez bi enpresak sendotzeko asmoz. Erakundeek farmazia gastua murriztu dute eta hori sektorerako "mehatxutzat" hartu dute.

INFORMAZIO +



... gainera

IPAR KUTXAK %2,77 AREAGOTU DITU IRABAZIAK 2010EAN

Ipar Kutxa euskal kooperatibak 2010. urteko ekitaldia itxi du 13,3 milioi euroko irabazi garbiekin, aurreko ekitaldian baino %2,77 gehiago. Emaizta horiei esker, aurrezki kutxak "zuhertasun politika indartu" du eta balizko mailegu berankorren hutsuneak betetzeko diru funtsa handitu du. Hala ere, berankortasun tasa %3,49koa du Ipar Kutxak, "sektorearen batez bestekoa baino nabarmen txikiagoa". Entitateak azpimarratu du banku-jardueraren hazkundera (%13). Era berean, maileguen bolumena 2.449 milioi eurokoa izan da, 2009an baino %2,31 gehiago; hazkunderik handiena, %15, enpresen alorrak izan du.

UV-K EKONOMIA SOZIAL ETA KOOPERATIBORAKO LAN-POLTSA SORTU DU

Valentziako Unibertsitateak (UV) gizarte ekonomian eta ekonomia kooperatiboan espezializatutako lan-poltsa sortu du, graduatu-ondoko ikasleen eta autonomia erkidego horretan dauden 4.000 enpresen beharrei erantzun nahian. Lan-poltsa Unibertsitateko IUDESCOP Ekonomia Sozial eta Kooperatibako Institutuak sortu du. IUDESCOOPeko zuzendari Joan Ramón Sanchisek azaldu zuenez, lan-poltsa horrek erraztuko du Ekonomia Sozial eta Kooperatiboan graduatutako ikasleen eta arlo horretarako enpresen arteko lotura.

LANERATZEKO TEKNIKARIAK TREBATZEKO MINTEGIAK ANTOLATU DITU GIZATEAK

Gizarteratzeko laguntzarako teknikarien harreman gaitasunen garapena' izenburuko prestakuntza mintegiak antolatu ditu Gizateak. 2011ko lehen seihilekoan, laguntzeko lanarekin lotutako zenbait prozesu eta elementu aztertuko dituzte, batez ere kualitatiboak eta harremanei dagozkionak. Horretarako, bost



Ikerlan-IK4-k eta Oronak berrikuntza sarean garatzeko akordioa sinatu dute

Ikerlan-IK4 ikerkuntza zentroak eta Orona kooperatibak elkarlanerako hitzarmena sinatu dute, datozen lau urteotan teknologia berrikuntza lantzeko. Lan egiteko modua sarean da, jakintza ahalmena ahalik eta handiena izateko asmoz. Lan ildoak dagokienez, lehenetsunak dira Oronaren Berrikuntza Sarea garatzea, estrategiaazko teknologia propioak identifikatu eta egitea eta merkatuaren eskaera berriei egokitzen diren pertsonak eta ekipoak trebatzea.

INFORMAZIO +

Ferrocarril sare komertziala osatzen ari da Europako merkatuan sartu ahal izateko

Galdaragintzan eta egitura metalikoen eraikuntzan espezializatutako Gipuzkoako enpresak merkataritza-agentek ditu Frantzia, Austria eta Alemanian. Epe erdira Benelux eta Britainia Handira ere egingo du jauzi. Bestalde, obra zibilaren, ekipo-fabrikatzaileen eta birziklatzeko makinariaren sektoreetan sartu nahi du.



INFORMAZIO +



2011ko Estatuko Aurrekontu Orokorrek gizarte ekonomiaren aldeko neurriak jasotzen dituzte

2011ko Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 22ko 39/2010 legeak enplegu autonomia eta gizarte ekonomia sustatzeko neurriak jasotzen ditu (94 milioi euro), bai eta horiek zein enpresen ardura soziala hedatzeko ere (5,2 milioi euro).

INFORMAZIO +

Beste **behatoki**
batzuen
buletinak

mintegi antolatuta ditu Gizateak, otsailetik ekainera bitartean, hileroko lehen ostiraletan. Lehenengoa otsailaren 4an izango da. Mintegiak Eutokia Berrikuntza Zentroan, Bilbon, izango dira eta horiek dinamizatzen Deustuko Unibertsitateko Gizarte Hezkuntzako irakasle Natxo Martínez eta Asier Gallastegi gizarte aholkularia arituko dira.



Otsailaren 6tik 11ra

X. Munduko Gizarte Foroa 2011. Dakar (Senegal).
<http://fsm2011.org/es>

Otsailaren 17an

'Gizarte Aurreikuspeneko Mutualismoa' jardunaldia. EHUK Ibaetan duen Campusa (Donostia).
[Egitaraua ikusi](#)

Otsailaren 23an y 24an

Laneratze Enpresen Nazioarteko I. Azoka, Insercion, Bartzelona.
www.faedei.org

Apirilaren 6tik 8ra

CIRIECeko Gizarte Ekonomiaren Ikertzaileen Nazioarteko Biltzarra. Valladolid. www.ciriec.es

Ez baduzu buletina gehiago jaso nahi, erantzun mesedez helbide honetara eta mezuaren gaiaren eremuan BAJA hitza ipini